

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Fruizko Udala****Aldaketak egutegi fiskalean, COVID-19aren ondorioz**

59/2020 DEKRETUA, 2020ko apirilaren 29koa. 2020ko martxoaren 17an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Fruizko TMIZren 2020rako errolda, martxoaren 5eko 40/2020 Dekretuaren bidez onetsi zena. Bertan, 2020. urterako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari zegokion ordainketa-data ezarri zen.

Dekretu horretan ezarri denarekin bat, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzeko epea 2020ko apirilaren 15etik 2020ko ekainaren 15era artekoa zen. 2020ko martxoaren 18an Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea argitaratu zuen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoa. Dekretuan honakoa ezarzen zen:

«1. artikulua.— Xedea eta aplikazio-eremua

Foru Dekretu arauemaile honetan ezarritako neurri fiskalen xedea da Bizkaiko Foru Ogasunak funtzionamendu normala izatea eragozten duten COVID-19 birusak sortutako pandemiaren ondorioak arintzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren pean dauden zergadunen kasuan.

2. artikulua.— Tributu-prozedura batzuetan epeen hasiera etetea edo luzatzea

Bat. Indarrean dagoen tributu-araubidearen arabera ofizioz hasi behar diren tributu-prozeduretan, hasiera hori eten egingo da 2020 ekainaren 1era arte, 2020ko martxoaren 16tik aurrera hasi behar diren prozeduren kasuan. Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez die inola ere eragingo zehapen prozedurei, ofiziozko konpentsazioei, enbargoiei, gerorapenak onartzeko erabakiek eraginkortasuna galtzea dakarten ekintzei, kobraezinen deklarazioei eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio-proposamenei.

Bi. MITributu-araubidearen arabera aurkezpen telematikoa nahitaezkoa ez duten tributu-prozeduren autolikidazioa edo aitortpena aurkezteko borondatezko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, betiere epe hori data hori baino lehen amaitzen bada.

Hiru. MIHalaber, errekurtsioak edo erreklamazio administratiboak aurkezteko epeen hasiera edo zergapekoek eskatuta hasi behar den tributuen arloko beste edozein jarduketaren hasiera 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, tributu-araudian aurkezpen telematikoa nahitaezkotzat ezarrita ez duten prozeduretan.

4. artikulua.— Tributu-prozeduren izapidetzea etetea

Bat. I2020ko martxoaren 16a baino lehen hasi diren tributu-prozeduren etenaldiak etenaldi justifikatutzat joko dira zergapekoaren kasuan, edo, bestela, Zerga Administrazioari egotzi ezin zaion arrazioen ondoriozko luzamendutzat joko dira, eta, beraz, ez dira zenbatuko prozedurak ebazteko epean. Neurri hau ezarriko da prozedura eteten denetik 2020ko ekainaren 1era arte.

6. artikulua.— Indarrean dauden gerorapenak

Hilabete atzeratuko da onartutako gerorapenen martxoko ordainketa egiteko muga-eguna, eta, ondorioz, hilabete atzeratuko da gainerako muga-egunetako bakoitza; ez da berandutza-interesik sortuko 2020ko martxoaren 25etik apirilaren 25era arteko epeak direla-eta.



AZKEN XEDAPENETAKO

Azken Xedapenetako Lehena. — Indarrean jartzea

Foru Dekretu arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean eta 2020ko martxoaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.»

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren martxoaren 23ko 2/2020 Jarraibideak, Foru Dekretu Arauemaileari buruzkoak, lehen artikuluan xedatzen duenez, martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean jasotako neurri fiskalak Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeei ere aplika dakizkieke, eta bere bigarren artikuluko lehen atalean berresten du indarrean dagoen zerga-araudiaren arabera ofizioz egin behar diren tributu-prozeduren hasiera etenda geratzen dela 2020ko ekainaren 1era arte, 2020ko martxoaren 16tik aurrera hasi beharko liratekeen kasuetan. Eta, ondorioz, prozedura horiek hasteko epeen zenbaketa ere etenda geratzen da, prozedura epe jakin bat bete behar denean.

Alkatetza hau udal-organo eskuduna da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 60.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Alkatetza honek, legeak ematen dizkion eskumenak erabiliz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa: 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean ezarritakoa kontuan hartzea. Udalak kudeatzen dituen zerga eta prozeduretan 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean ezarritako epeen luzapenak eta eteteak ezartzea, Bizkaiko Foru Aldundiak aplikatutako irizpide berberei eutsiz.

Bigarrena: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda jendaurrean jartzeko beste epe bat ezartzea, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzunaldia emateko, 15 egun balioduneko epean, 2020ko ekainaren 1etik aurrera, egoki irizitako erreklamazioak aztertu eta aurkeztu ahal izateko. Ondorio horietarako, errolda hori udaletxeko bulegoetan egongo da.

Hirugarrena: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzeko epea aldatzea. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearekin bat etorritik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epearen hasiera 2020ko uztailaren 1era atzeratzea. Ordaintzeko epea uztailaren 1etik abuztuaren 3ra bitartekoa izango da.

Laugarrena: Argitaratzea. Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-oholean argitaratzeko agintzea, herritar guztiek horren berri izan dezaten.

Fruizen, 2020ko apirilaren 29an. — Alkatea, Ane Legarretaetxebarria Aurtenetxe